

Buruntzaldean ere errenta aitortpena euskaraz! Aurten 4.250 baietz!

- Ekin diote Buruntzaldean 2010eko errenta aitortpenari. 2004an hasi ziren Buruntzaldeko udalak errenta aitortpena euskaraz egiteko sustapen lanetan eta gehitzen joan da harrezkeroztik errenta aitortpena euskaraz egiten dutenen kopurua. Errenta egileen %4,9k egin zuten euskaraz 2004ko aitortpena. 2009ko datuen arabera %9,92ra igo da kopuru hori. Urtero 500en bat herritar gehiagok erabakitzen dute euskaraz egitea errenta aitortpena. 2009ko datuen arabera 3.750 izan ziren euskaraz tramitatutako aitortpenak. Beraz, aurten 4.250 baietz!
- Zuk ere pausua eman nahi baduzu, aukeratu duzun banketxe, ogasun zerbitzu bulego edota aholkularitza etxean, 2010eko errenta aitortpena euskaraz egin nahi duzula esan besterik ez duzu. Jada etxean egin jaso baduzu gauza bera. Gaztelaniaz jaso baduzu hemendik aurrera euskaraz jasotzea nahi duzula eskatu besterik ez duzu, horretarako telefonoz deituta edota Internet bidez eginez gero, dagokion tokian "x" jarrita. Informazio gehiago [hemen](#)



Euskadiko Kutxarekin hitzarmena

- Buruntzaldeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako udalak, herri-langile eta herritarren artean euskararen erabilera gehitzeko egiten ari diren ahaleginean ulertu beharko ditugu lehen Kutxarekin eta orain Euskadiko Kutxarekin sinatutako hitzarmenak.
- Hitzartutakoen artean: elkarren arteko harremanak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz izan daitezen saiakerak eta baliabideak ipintzea. Funtzionamendu esparruguztietan euskara ahalik eta gehien erabiltzea.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Travel Club: "informazioa euskaraz jaso nahi dut"

- Travel Club txartela baduzu, euskaraz informazioa jasotzeko aukera ere izango duzu. Eta horretarako, kanpaina berri bat jarri da abian, euskarazko ahalik eta aldizkari gehien eskatzea delarik helburua, apirila bukatu aurretik posible bada.
- Zer egin behar da? Internet bidez zure kontuan sartu, "gestionar tu cuenta" klikatu, eta ondoren "consultar y modificar tus datos personales" + "guardar". Hortxe "euskara" aukera.
- Informazio gehiago [hemen](#)

Euskara Interneten? Bai, horixe!

- Euskal hiztunen kopurua kontuan hartuta, euskarak Interneten duen presentzia nabarmena dela esan genezake. Ikus datuak, bestela!
- 38. postuan Munduko Hizkuntzak Internet-en Ranking-ean.
- Wikipedia: 45. postuan da euskara.
- Google bilatzailean: 40. postuan.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Gramatika "osoa" Interneten

- EHUK sarean jarri du aspaldian iragarritako proiektua, Euskararen Gramatika Osoa. Wiki modura egituratua dago eta euskararen gramatikaren gaineko informazio ugari ematen du.
- Egon, asko dago, baina ez dakigu "osoa" izena ez ote den lartxo izango. Zeuk iritzi!
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnietako Udaltzailetako Udaltzaileak. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org